

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 3. atala

DATA: 2024/04/26

GUREAN

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA
2024/04/23

Apirilak 23 egun zoragarria izan zen. Irakurketa maratoia antolatzeaz gain, ipuin eder batzuk entzun genituen gure ikastolako geletan. Guraso batzuk etorri zitzaizkigun ipuin kontalari eta beraien hitzen magiarekin ikasleak liluratuta utzi zituzten. Esperientzia bikaina izan zen! Eskerrik asko guztioi parte hartzeagatik! Ipuinak irakurtzeak ere amesteko aukera zabalitzen du eta.

Beste alde batetik, irakurketa maratoia antolatu genuen apirilaren 23an. Hainbat ikaslek parte hartu zuten eta guztion artean Nerea Loiolaren "Harri bat poltsikoan" ipuina irakurri genuen. Ikusgai, gure youtubeko kanalean.



GURE INGURUAN

DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA

NOIZ: Apirilak 28 NON: Victoria Eugenia

Igandean, apirilak 28, Dantzaren Nazioarteko Egunaren XXVII. Gala ospatuko da Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, Donostia Kulturarekin lankidetzan. Bi saio izango dira, lehena 12.00etan eta bigarrena 19.00etan. Sarreraren prezioa: 24 €, 18 € eta 10 €.

Antolatzailea: APDG Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarte Donostia Kulturarekin lankidetzan.

Dantzariak eta konpainiak: Hodei Iriarte; Baionako Illicite Konpainia (Frantzia); Igor Calonge eta Oihana Vesga; Iker Rodríguez; Mikel Arana, Jac Ballet, Elephant in Black Box, Verdini Dantza Taldea, Jon Vallejo, Grand Ballet Kiev eta Biarritzeko Malandain Ballet.



BILINTXEN MENDA BERTSO HAMABOSTALDIA 2024

NOIZ apirilak 28 NON: Antzoki Zaharra 19:00
Bertsolari Txapelketen antologia kantatua



1935etik 1967ra bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietan zeharreko bidaia bat, gaur egungo bost bertsolariren ahots eta begiradetatik egina. Bertsolari Txapelketa bakoitzak bere garaiko gai, ikuspegi eta ahotsak bildu ohi ditu. Emanaldi honetan garai bakoitzean kantatzen zenaren eta gaur egun kantatuko litzatekeenaren arteko ispilujoko bat osatuko dute Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran, Unai Agirre, Nerea Ibartzabal eta Aner Euzkitze bertsolariek, Gari Otamendi eta Ixak Arrutiren musikak lagunduta. Aizpea Goenaga arituko da aurkezle lanean.



Herri Ametsa
Ikastola

Ikastola txikia, familia handia



GURE ARTEAN

KRISTINA ARBONA IKASTOLAKO PRESIDENTEA

- Ikastolako presidentea, ikasle ohia eta ama? Paperik zailena?

KRISTINA: Une honetan, ama izatea izan daiteke paperik zailena. Beti zure alaba ondo hazi nahi duzu eta batzuetan ez da erraza.

- Ikastola ezagutzen ez duen pertsona bati zer komentatuko zenioke Herri Ametsari buruz?

KRISTINA: Ikastola txikia, familia handia... Hauxe da gure leloa eta benetan horrela dela pentsatzen dut. Gertutasuna, heziketa konprometitua eta langile eta guraso guztien inplikazio handia dira azpimarratuko nituzkeen punturik garrantzitsuenak.

- Txikitatik ezagutzen duzu ikastola. Zer oroitzapen gordetzen dituzu?

KRISTINA: Nire gurasoak bertako langileak ziren eta hemen bizi ginen, ikastolan. Garai hartako oroitzapen zoragarriak ditut. 8 bat urte egon ginen hemen bizitzen eta beti zegoen zeozer egiteko. Aita eta amari laguntzen pasatzen genuen eguna kar kar kar. Nire bizitzan, Herri Ametsak paper oso garrantzitsua jokatzen du, zalantzarik gabe.

- Nolako esperientzia izan zen Korrikan lekukoa eramatea?

KRISTINA: Alabak eta biok eraman genuen eta ohore handi bat izan zen. Gau hori ez dugu inoiz ahaztuko.

HITZ BATEZ...

→ ZURE TXOKORIK GUSTUKOENA?

ULIA MENDIA

→ DASTATZEKO PLATER BAT?

BISIGUA LABEAN

→ KIROI BAT PRAKTIKATZEKO?

ARRAUNA

→ ZEINEKIN JOANGO ZINATEKE OPORRETARA?

FAMILIAREKIN

BERRI GEHIAGO NAHI?

